

Balorezko Proposamena

Kupelike proiektuak, produktu bat izan arren, zerbitzu bat eskaintzen du. Kupelike Proiektuan, Sagardotegietako kupelen Like kopurua display-batean errepresentatzea da bere helburua. Like horiek bezeroek web orrialdetik botatu dezakete edo sagardotegian bertan, kupelean dauden botoien bidez botatu dezakete. Gure aplikazioan, beste web orrialdetako sagardotegietako informazioa aurkituko duzu, baina era ordenatu batean, izan ere, sagardotegiak zuk nahi duzun arabera ordenatu ditzazkegu: prezioa, kalitatea, populartasuna, urruntasuna...

Beraz, bezeroei sagardotegiko giroa sustatzen du, baita ere bezeroei informazioa errazten zaie, beste pertsonen arteko erlazioa sustatzen du, bezeroak izanez gero deskontuetan parte hartu dezakete eta gainera gure produktua beste edozein negoziarako bideratu daiteke, adibidez arropa denda batera, prenda bakoitzaren like kopurua ikusi dadin. Horrela bezero bakoitzak prenda horrek arrakasta handia duen edo ez ikusi dezake.

- Proposamen berritzailea da. Dendetan ez daudelako bezeroen iritzia ikusten bakarrik Web orrialdetan.
- Instalazioa oso merkea izango da eta ez dira egongo kablerik, dena bluetooth eta interneten bidez egongo delako.
- Diseinu erakargarria: Botoien Koloreen bidez, bezeroei parte artarazi egiten diegu, oso dinamikoa delako.

